

## Kudeaketa arauak



Sakanako Garapen Agentzia S.L.  
B71099204  
Uritz kalea, 32  
31830 Lakuntza, Nafarroa

Lehen sektorea eta turismoaren arteko elkarlaneko ekintza bat azokak dira. Nekazaritza eta abeltzaintza azokak hain zuzen ere. Garai batean azoka hauek ganaduaren sal-erosketarako gune ziren; gaur egun animalien erakusleihu direlarik. Oraingo helburua, elikagaien salmenta delarik. Gune hauetan saltzaile mota ezberdinak aurkitzen dira; ekoizleak, eraldatzaileak, saltzaile hutsak... Guzti hauek ez daukate identifikazio argirik, ondorioz ekoizleak eta eraldatzaileak beren produktuaren garrantzia azaltzeko zailtasunak izaten dituzte, eta bestalde, kontsumitzaileek ere informazio nahasia jasotzen dute maiz.

Hau dela eta, inguruko azoka ezberdinak aztertu dira eta bertako produktua bereizi ahal izateko inbertsioak egiteko beharra dagoela ikusi da. Hau horrela izanik, karpa batzuk erosi dira.

Karpa hauen helburuak hurrengoak izango dira;

- **Lehenengo sektoreari bultzada eman**
- **Bertako produktua bereizi**
- **Azoka salmenta gune bilakatu**
- **Sakanako azoken irudi bateratu bat izan**
- **Aurreko helburu eta baloreei lotutako Sakana marka Sakanaz kanpo zabaldu**

Aipatu behar da, karpek erabilera anitza izango dutela, baina lehentasuna aurreko helburuak betetzen dituzten azokek izango dutela. Karpen erabilera bakoitzaren ostean, balorazio bat egin behar da, helburuak bete diren ala ez aztertu ahal izateko eta ondorio batzuk ateratzeko. Kasu honetan, eskaria egin duten elkar edo udalei konpromezua hartzeko eskaera egingo zaie aurretik aipatu diren helburu horiek bete ahal izateko pausuak ematen joan daitezen, balorazioa egin ostean bete ez direla ikusi bada.

Honez gain aipatu behar da, helburu hauek betetzen dituzten ekoizleak karpa hauez gain, beste era batera bereiziko direla, hau da enarak, identifikazio orriak...ipiniko zaizkie

### **Eskaera gauzatzea:**

- Idatzizko eskaera bat egin behar da zaio Sakanako Garapen Agentziari. Web orrian ([www.sakanagaratzen.com](http://www.sakanagaratzen.com)) agertzen den eskaera orria beteaz. (Tel. 948 11 73 44)
- Idatzi hau posta elektronikoz ([info@sakanagaratzen.com](mailto:info@sakanagaratzen.com)) bidali behar da.
- Eskaera onartua izango da Sakanako Garapen Agentziak baieztatu edo ezeztatu erantzuna idatziz eta arrazoiak argumentatuz ematen duen momentuan.

### **Karpen ezaugarriak:**

- Neurriak: Zabalean 4.5 metro eta luzeran 3 metro neurtuko dituzte. Goiko aldean lona batez tapatuko da.
- Karpa bakoitza bi kontrapixu izango ditu, eskatutako kantitatearen arabera moldatu ahal izango dira.
- Bi karpa atzetik eta aldeetatik itxiak izateko aukera egongo da.

### **Karpak uzteko baldintzak:**

- Eskaera Udalek edo Elkarteren batek egin behar da.
- **Lehentasuna hasieran aipatu diren helburuak betetzen dituzten azokek izango dute.**
- Biltegiatze eta gainbegiratze kostuak direla eta eskatutako karpa kantitatearen arabera



hurrengoa ordaindu beharko da:

- 1-5 karpa: 20€ + B.E.Z.
  - 6-13 karpa: 50€ + B.E.Z.
  - 14-20 karpa: 80€ + B.E.Z.
- Kostu hauez gain, fidantza bat gehitu beharko da non honen balioa karpa kantitatearen araberakoa izango den.
    - 1-5 karpa: 100€
    - 6-13 karpa: 200€
    - 14-20 karpa: 300€

Fidantzarekin kontuan izan beharko da, entitate berdinari bi aldiz jarraian fidantza kentzeko bazaio, karpn hurrengo erabileran 200€ gehiago jarri beharko dituela fidantza moduan.

Material guztia jaso zen egoera berdinean dagoela ziurtatzen den garaian itzuliko da fidantza. **Hau horrela izanik, itzultzen diren momentuan karpa guztiak ireki eta begiratu egin beharko dira ekartez arduratu diren pertsonekin batera.**

Fidantzak ez du kitatuko materiala apurtu edo galtzearen kostua. Kasu horretan material berria erosiko da eta eskatzaileari pasatuko zaio faktura.

Materiala ez bada aurretik esandako datan itzultzen fidantza galtzeko aukera egongo da.

- Fakturak ekitaldia pasatu ondoren Sakanako Garapen Agentziak eskaera burututakoari pasatuko lioke.
- Fidantza faktura ordaindu ostean itzuliko da.
- Karpak jaso baina bi egun lehenago fidantza ordaindu beharko da. Hau egin ezean, ez da materialik utziko.
- Materiala Arbizuko Udalak Utzугanen (Utzugar poligonoa) duen biltegian jasoko da.
- Materialaren jasotzea eta itzultzea aste barruan egingo da 8:00tatik 15:30tarako ordutegian, ardura hau eskatzailearena izango da beti, aurretik Garapen Agentziarekin kontaktuan jarrita.
- Eskatzaileak karpak ipintzerakoan arazorik ikusten badu (hautsiak egotea...) telefonoz 672 68 85 91 jakinarazi beharko dio Sakanako Garapen Agentziari erabili aurretik. Erabili aurretik jakinarazten ez bada, materialaren haustura eskatzaile horren arduratzat joko da.
- Garraioa eskatzailearen ardura izango da.
- Karpak beti zutik garraiatu beharko dira.
- Materiala jaso den baldintza berdinetan itzuli beharko da.
- Materiala mugitu ahal izateko gutxienez bi pertsona beharko dira.
- Materialaren eskatzaileak *Erabileraren egokirako praktikak* onartzeko konpromisoa hartuko du. Hauek jarraian azalduko direlarik.
- Karpa hauen erabileran 3. pertsoneri sortzen zaizkien arazoaren kargu udala edo elkarte eskatzailea egingo da.

## Erabilera egokirako praktikak

- Jaso aurretik lonak garbi egon beharko dute.
- Lonak bustitzen badira, lehortu arte ezingo dira jaso.
- Karpa jasotzeko egitura metalikoa eta aldeetako eta atzeko kortinak bereizi egin beharko dira.
- Karpa bakoitza zenbaki bitartez identifikatua egongo da eta poltsa bakoitza ere bai, ondorioz karpa bakoitza dagokion poltsan jaso beharko da.



Karparen zenbakia



Poltsaren zenbakia

## Identifikazio panelak

Sakanako Garapen Agentziak 40 panel identifikatzaile dauzka azokako parte hartzaile bakoitza eta bere produktuak identifikatzeko. Hauen eskaera egiteko, karpak eskatzen diren momentuan eskaera orriko beharrezko gelaxkan identifikazio panel kantitatea jarrita nahikoa izango da.

